

NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE-TRUKEA. OINARRIZKO GIDA

Graduetako ikasleak
90 eta 120 kredituko Masterretako ikasleak

(2023-09-25)

Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetza

Nazioarteko truke-programak

Zer esan nahi du “nazioarteko mugikortasuna egiteak”?

Nola prestatu zure mugikortasuna

- [Informazioa lortzea](#)
 - [Hitzaldi informatiboak](#)
 - [Zuzendariordetzaren webgunea](#)
- [Preselektzio-fasea](#)
- [Nazioarteko mugikortasuna eskatzea](#)
 - [Baldintzak](#)
 - [Dokumentazioa](#)
- [Selektzio-irizpideak](#)
- [Urrutiko azterketak](#)
- [Baliozkotzeak](#)

Mugikortasunerako oinarrizko egutegia

Plaza bat esleitu didate. Zer egin behar dut?

Harremana

FAQ


Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetza

Bilboko Ingeniaritza Eskolaren Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzak, Eskolako ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren mugikortasuna bultzatzea eta kudeatzea du misio gisa, instituzio honek eskaintako unibertsitate-truke programa ezberdinen bidez, Nazioarteko mugikortasuna elementu bereizle bezala bere curriculumean sustatuz.

Halaber, programa berbera horien barruan gure Eskolara etortzeko eskatzen dituzten atzerriko unibertsitate eta erakundeetako taldeen eskaerak ere kudeatzen ditu.

Helburu hauek betetzeko, Bilboko Ingeniaritza Eskolaren Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetza pertsona hauek osatzen dugu:

- Nazioarteko Harremanen Zuzendariordea: Saioa Herrero irak. (1 eraikina, P1D4), 4014 luz.
- Nazioarteko Harremanen Bulegoa (1 eraikina, P1E2):
 - Nazioarteko Harremanen Teknikaria: Cecilia Fernández, 8228 luz. (outgoing.eib@ehu.eus)
 - Arloaren arduraduna: Ane Laña, 8226 luz. (sicue.eib@ehu.eus)
 - Administrazio-laguntzaileak: Itxaso Saenz del Burgo (7250 luz.) eta Blanca Uriarte (4397 luz.)



Nazioartekok truke-programak

Nazioarteko mugikortasun-programak hauexek dira:

- **Erasmus+ programa:** Europako herri barruko mugikortasuna, Europar Batasuneko kideentzako eskusibotasunik gabe
- **AL programa** (Amerika Latindarra): Amerika Latindarreko ingurune barruko Mugikortasuna
- **BN programa** (Beste Norako Batzuk): aurreko kategorietan ez sartutako nazioarteko mugikortasuna (Erresuma Batua, Ipar Amerika, Asia, Global E3 eta GE4 sareak)

Kasu oso zehatz batzuetan, Materretako ikasleek **Titulazio Bikoitz bat** egiteko aukera dute, nazioarteko mugikortasunean zehar.

Zer esan nahi du “nazioarteko mugikortasuna egiteak”?

Mugikortasun bat egitea, akordio dagoen atzerriko unibertsitate batean irakasgai batzuk ikasten datza, eta gero Eskolako beste batzuk baliozkotzen dira. Horregatik, kontuan hartu behar duzun lehena da, Bilboko Ingeniaritza Eskolan, mugikortasuna egiten dela:

| Titulazioa | Periodo de movilidad |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua - Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua - Itsasketako Gradua - Nautika eta Itsas Garraioko Gradua | 4. kurtsoa (lehen lauhilabetea) (*) (*) USA, Erresuma Batu edo India norakoen kasuan, mugikortasuna lauhilabete baterako edo kurtso osorako izan ahal izango da |
| <ul style="list-style-type: none"> - Ingurumen Ingeniaritzako Gradua - Ingeniaritza Zibileko Gradua - Ingeniaritza Elektrikoko Gradua - Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua - Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua - Ingeniaritza Mekanikoko Gradua - Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua | 4. kurtsoa (lehen edota bigarren lauhilabetea) |
| <ul style="list-style-type: none"> - Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterra - Telekomunikazio Ingeniaritza Unibertsitate Masterra - Ingeniaritza Mekanikoa Unibertsitate Masterra - Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Masterra - Kontrol Ingeniaritza, Automatizazioa eta Robotika Unibertsitate Masterra - Material Aurreratuen Ingeniaritza Unibertsitate Masterra - Ingurumen Ingeniaritza eta Kudeaketa Masterra | 2. kurtsoa (lehen edota bigarren lauhilabetea) |

Zure mugikortasunarekin baliozkotu ahal dituzun Eskolako irakasgaiei buruz pentsatzean, har ezazu kontuan izan behar direla:

Graduetako ikasleak (hurrenkera honetan)

- 4. kurtsoko lehen lauhilabeteko irakasgaiak + urteko irakasgaiak
- 4. kurtsoko bigarren lauhilabeteko irakasgaiak
- 3. kurtsoko irakasgai bat (1), **norako programak Eskolakoa guztiz betetzen badu, bakarrik**

Masterretako ikasleak (hurrenkera honetan)

- 2. kurtsoko irakasgaiak
- 1. kurtsoko irakasgai bat (1), **norako programak Eskolakoa guztiz betetzen badu, bakarrik**

Nola prestatu zure nazioarteko mugikortasuna

Informazioa lortzea

Unibertsitate-trukea egiteaz pentsatzen ari bazara, Eskolak eskaintzen dizkizun aukeren gainean ondo informatu behar zara. Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzak behar duzun informazioa emango dizu.

Hitzaldi informatiboak

Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzak unibertsitate-trukeari buruzko hitzaldiak antolatzen ditu, Graduetako 1. eta 2. kurtsuetako ikasleei, Graduetako 3. eta 4. kurtsuetako ikasleei eta Masterretako 1. kurtsoko ikasleei zuzenduta. Jarduera hauei publikitatea ematen zaie Zuzendariordetzaren tauletan kartelak ipiniz, pantailetan argitaratuz eta ikasleen *ikasle* helbidera email bat ere bidaltzen da.

Hitzaldiak goizez eta arratsaldean antolatzen dira, pertsona-kopuru handienaren asistentzia errazteko asmoz. Hauetan, truke-programarekin erlazioa duen informazioa ematen da, norakoak eta bere ezaugarriak, ikasleek bete behar dituzten oinarriko baldintzak haietako bakoitzean eskatu ahal izateko, etab.

Nazioarteko mugikortasuna egiteko interesa baduzu bilera horietara joan behar duzu, haietan oso erabilgarria izango zaizun informazioa izango duzulako. Hitzaldietara joan ondoren zuretzako hoberenak diren opzioei buruzko zalantzak izatekotan, outgoing.eib@ehu.eus-i idazten duzu.

Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzaren webgunea

[Gure webgunean](#) Zuzendariordetzarekin erlazioa duen informazio guztia aurki dezakezu: osatzen dugun pertsonak, gure kokapena, sinatutako akordioak ditugun atzerriko unibertsitateen zerrenda, norakoak eta bere ezaugarriak, eta ezagutu behar dituzun prozedurak eta dokumentuak

Aurreselektzio-fasea

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak kudeatzen du UPV/EHUko ikasleen unibertsitate-truke prozedura. Hala ere, Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzak titulazio bikoitzen eta nazioarteko sareen programetarako aurreselektzio-fase bat burutzen du bere partez. Hau urrian izaten da.

Zuzendariordetzak aurreselektzio-fase honetan parte hartzeko prozedura eta epeei buruz informazioa emailaz bidaltzen zaie ikasleei, eta gure webgunean ere argitaratzen da. Fase honen emaitza, Nazioarteko Harremanen arloko Bulegoaren sarreran dagoen iragarki-taulan argitaratzen da (P1E2).

Nazioarteko mugikortasuna eskatzea

Azaroan, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak aukera irekitzen du GAUR-en unibertsitate-trukea eskatzeko, nazioarteko mugikortasun-programen barruan. Behin Errektoreordetzatik komunikazioa jasota, ikasleei email bat bidaltzen zaie, GAUR-en mugikortasun-eskaera egiteko prozedura eta epeei buruz informazioarekin. Gure webgunean ere argitaratzen da.

Eskaera-prozesuak dirauen bitartean, zure @ikasle.ehu.eus posta elektronikoa jasoko dituzu Errektoreordetzak bidalitako jakinarazpenak. Adi egon postara, inongo eperik ezta izapiderik ere ez pasatzeko.

Nazioarteko mugikortasuna eskatzeko baldintzak

Eskaera egitean, norakoen zure titulazioarekiko afinitateaz gain, hurrengo baldintzak hauek ere kontuan hartu behar dituzu:

- Eskaera GAUR-en egitean, hizkuntza-mailaren baldintza betetzea derrigorrezkoa da. Tiltulu ofizialik ez edukitzekotan, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, Zuzendariordetzaren webgunean argitaratutako eredia erabiliz.
- Eskaera egitean, Graduetako ikasleek 1. eta 2. kurtsoetako 102 kreditu izango dituzte gaindituta gutxienez.
- Akademi-akordioaren proposamena aurkeztea derrigorrezkoa da, eskatutako lehen hiru norakoentzat. Proposamenean, ikasleak Eskolan ikasten duen espezialitatearekin lotuta egon behar dute, norako eta Eskolako kreditu-kopuruak baliokideak izan behar dira, eta ikaslearen hizkuntza-mailak norakoak eskatutakoa bete behar du. Gainera, proposamenean adierazitako UPV/EHUko irakasgaiak Eskolako arautegiari jarraitu behar die. Halaber, norakoan egiteko irakasgai hautatuak hitzarmenak sinatuta dauden norako unibertsitateko zentru/departamentuetan emango dira.
- Graduetako ikasleen Konpromiso Akademikoak (Learning Agreement) 4. kurtso irakasgaiak izango ditu soilik. Salbuespen gisa, 3. kurtso irakasgai bat sartu ahal izango da; horretarako, hurrengo baldintzak bete behar izango dira:
 - Norako irakasgaiak eta Eskolako kreditu-kopurua baliokidea izango dute.
 - Norako irakasgaiak, Eskolako irakasgaiaren temario osoa bete behari izango du.
 - Akordio Akademikoaren (Learning Agreement) proposamena aurkeztean, eskatzaileak norakoan ikasteko irakasgaiaren proposamena aurkeztu behar izango du ere, Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzaren webgunean eskura izango duen eredia betez.
- Masterretako ikasleen Konpromiso Akademikoak (Learning Agreement) 2. kurtso irakasgaiak izango ditu soilik. Salbuespen gisa, 1. kurtso irakasgai bat sartu ahal izango da; horretarako, hurrengo baldintzak bete behar izango dira:
 - Norako irakasgaiak eta Eskolako kreditu-kopurua baliokidea izango dute.
 - Norako irakasgaiak, Eskolako irakasgaiaren temario osoa bete behari izango du.
 - Akordio Akademikoaren (Learning Agreement) proposamena aurkeztean, eskatzaileak norakoan ikasteko irakasgaiaren proposamena aurkeztu behar izango du ere, Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzaren webgunean eskura izango duen eredia betez.
- Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Graduko, Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduko, Nautika eta Itsas Garraioko Graduko eta Itsasketako Graduko ikasleek lehen lauhilebetean bakarrik egin ahal izango dute mugikortasuna. (*) USA, Erresuma Batu edo India norakoen kasuan, mugikortasuna lauhilabete baterako edo kurtso osorako izan ahal izango da.

- Gradu bateko modalitate duala ikasten duten ikasleek ezin dute mugikortasunik egin.
- Masterretako mugikortasuna, 90 eta 120 kredituko Masterrentzat da soilik.
- Eskolan titulazio bikoitza ikasten ari diren ikasleek ezin izango dute egin titulazio bikoitza mugikortasunean.
- Haien espezialitatea gutxienez azken hiru urteetan zehar erregularitasunez eman ez den Masterretako ikasleek mugikortasuna eskatu ahal izango dute, bigarren kurtsoko 2. lauhilabetean norakora joateko, baina Master Amaierako Lana soilik sartu ahal izango dute Akordio Akademikoan (Learning Agreement-en).
- Selektzio-prozeduran hartutako puntuazioa (Eskolako selektzio-baldintza zehatzei jarraituz) 20tik 7 puntukoa izan behar da gutxienez
- Norakora irten baino lehen, Graduetako ikasleek lehen kurtso osoa gainditua izan behar dute nahitaez. Horrez gain, bi baldintza hauetako bat bete behar izango dute:
 - 2. kurtso osoa gainditua izatea.
 - 2. kurtsoko irakasgai bat eta 3. kurtsoko irakasgai bat egiteke izatea gehienez.
- Norakora irten baino lehen, Masterretako ikasleek Gradu osoa gaindituta izan behar dute.
- Prestakuntza-osagarriak ikasten ari diren Masterretako ikasleek gaindituta izan behar izango dituzte osagarri horien kreditu guztiak norakora irten baino lehen. Bestela, uko egin behar izango diote esleitutako mugikortasunari.

Nahitaezko dokumentazioa

Ez ahaztu Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzaren webgunean adierazten diren dokumentuak epe barruan ematea derrigorrezkoa dela:

- Aurreselektzio-fasean parte hartzeko:
 - Baldintza-onarpena
 - Eskara bete-betea
 - Eskatutako hiru lehen norakoetarako akademi-akordioaren proposamena
 - Zioaren azalpena (gasteleraz + ingelesez/frantsesez, LAko norakoak salbuespen)
 - Eskola-espediente originala (UPV/EHUtik kanpo ikasi bada soilik).
 - Hizkuntza-mailaren egiaztagiri originalak ala Zinpeko Aitorpena
 - Parte-hartze ziurtagiriak (Eskolarekiko kolaborazio-jarduerengatik puntuak hartu nahi izatekotan)
 - Datu pertsonalen tratamendurako baimena
- GAUR-en eskaera egin ondoren:
 - Baldintza-onarpena
 - Eskara bete-betea
 - Eskatutako hiru lehen norakoetarako akademi-akordioaren proposamena
 - Eskola-espediente originala (UPV/EHUtik kanpo ikasi bada soilik).
 - Hizkuntza-mailaren egiaztagiri originalak ala Zinpeko Aitorpena
 - Parte-hartze ziurtagiriak (Eskolarekiko kolaborazio-jarduerengatik puntuak hartu nahi izatekotan)
 - Datu pertsonalen tratamendurako baimena

Nahitaezko dokumentazio hau ezarritako epeetan ematen ez baduzu, zure Eskara ez ka kontuan hartuko.

Selekzio-irizpideak

Norakoak puntuazioaren arabera ematen dira. Eskaerak puntuatzeko hainbat irizpide hartzen dira kontuan:

- Espedientea: 10 punturaino
- Atzerriko hizkuntzen titulu ofizialak: 3 punturaino (C1 edo C2 mailagatik 2 puntu hartuko dira, B2 mailagatik puntu bat, eta B1 mailagatik puntu erdi bat)
- Eskolako Buddy programa: 4 punturaino (lauhilabete bakoitzagatik, puntu bat gehienez)
- Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzarekin kolaborazioa (kolaborazio-taldea, Zuzendaritzak antolatutako beste ekitalki batzuk): 4 punturaino
- Beste kolaborazio-jarduera batzuk Eskolarekin: 3 punturaino

Irizpide hauetaz gain, norako unibertsitateek eskatutakoak ere kontuan hartu behar izango dira. Unibertsitate horiek jarritako irizpideak ez betetzekotan, ez da puntuazioa kontuan hartuko norako hauetarako.

Urrutiko azterketak

Mugikortasuna egiten duten ikasleek urrutiko azterketak egiteko aukera edukiko du, beti hurrengo baldintzak betetzen direla:

- Mugikortasuna egiten ari diren ikasurtean titulazioa amaitzeko moduan egon behar dute, hau da, Eskolako matrikulan titulazioa amaitzeko falta zaizkien irakasgai guztiak sartuta egon behar dira.
- Eskolako irakasgaiaren irakasleen oniritzia derrigorrezkoa da
- Bilboko Ingeniaritza Eskolako Nazioarteko Harremanen arloko Zuzendariordetzak ezarritako epean egin behar dute eskaera, Zuzendariordetzak jarritako prozedurari jarraituz.
- Norako unibertsitateko irakasle batek dagokion kudeaketaz arduratu behar du, baita deialdi ofizialeko egun eta orduan azterketa zaintzeaz ere.

Baliozkotzeak

Mugikortasuna amaitzean, norako unibertsitateek bidalitako *Transcript of Records*-en jasotako emaitzen baliokidetasun-tauletan oinarrituta baliozkotuko dira irakasgaiak. *ToR*-rek ez badu noten baliokidetasun-taula jasotzen, baliozkotzea Unibertsitate Ministerioak argitaratutako taulen arabera egingo da.

Mugikortasunerako oinarrizko egutegia

- **Irailaren amaiera-urriaren hasiera: nazioarteko mugikortasunaren oinarrizko ezaugarriak gogorazteko hitzaldiak, eskaera aurreselekzio-fasean zein GAUR-en nola egin adierazteko ere (ikasurtean hasieran informazioa emailaz bidaliko da, eta kartelak argitaratuko dira).**
- **Urriaren erdialdean: aurreselekzio-fasea** (data zehatzak, prozedura eta nahitaezko dokumentazioa jakinaraziko da, eta informazioa gure webgunean argitaratuko da)
- **Azaroaren hasiera: GAUR fasea** (data zehatzak, prozedura eta nahitaezko dokumentazioa jakinaraziko da, eta informazioa gure webgunean argitaratuko da)
- **Abendua: norakoen behin-betiko esleipena** (GAUR-ek automatikoki bidaltzen du komunikazioa)

Plaza bat esleitu didate. Zer egin behar dut?

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak kudeatutako eskaera-prozesu osoa amaitu ondoren, GAUR-en ikusi ahal izango duzu ea mugikortasunerako plaza esleitu zaizun. Norako bat esleituta baduzu eta onartzen baduzu, zurekin harremanetan jarriko dugu, joan behar duzun bilera baten deialdia jakinarazteko. Han, segidan jarraitu behar dituzun pausoak adieraziko dizkizugu

Eskolarekin harremana

Zure nazioarteko mugikortasunarekin erlazio duten gai eta zalantza guztietarako, jar ezazu harremanetan Nazioarteko Harremanen Teknikarekin (Cecilia):

- outgoing.eib@ehu.es
- +34 94 601 8228
- 1 eraikina, P1E3.1 bulegoa (**aurretiko hitzorduarekin**)

FAQ

Graduko ikaslea naiz. Truke-mugikortasuna egin ahal dut, lehen ala bigarren kurtsoetako irakasgairen bat suspendituta badaukat?

Zure mugikortasuna egiteko, lehen kurtso osoa gainditua izan behar dute nahitaez. Horrez gain, bi baldintza hauetako bat bete behar izango duzu:

- 2. kurtso osoa gainditua izatea.
- 2. kurtso irakasgai bat eta 3. kurtso irakasgai bat egiteke izatea gehienez

Graduko ikaslea naiz. Hirugarren kurtso irakasgai eraman al ditzake nire akordio akademikoan?

Bat bakarrik, eta norakoko programak Eskolakoa guztiz betetzen badu, soilik.

Masterretako ikaslea naiz. Lehen kurtso irakasgai eraman al ditzake nire akordio akademikoan?

Bat bakarrik, eta norakoko programak Eskolakoa guztiz betetzen badu, soilik.

Graduko ikaslea naiz. Norakoko masterreko irakasgaiak har ditzaket?

Edukiak eta kredituak Eskolako irakasgairen bat baliozkotzeko komenigarriak badira, Zuzendariordetzaren aldetik ez dago arazorik. Baina hori norako unibertsitate bakoitzaren arabera da, batzuek onartzen dute, beste batzuek ez. Haien webgunetan informaziorik aurkitzen ez baduzu, jarri harremanetan haien Nazioarteko Harremanen Bulegoekin, galdetzeko.

Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Graduko ikaslea naiz, eta prestakuntza duala eskatu nahi dut. Mugikortasuna eska al dezaket?

Bai, eskaera egin dezakezu, Errektoreordetzak ezarritako epe barruan. Baina azkenean prestakuntza dualean onartzen bazaituzte, mugikortasunari uko egin behardo eduzu, eta zure eskaera baztertu egingo da.

Posible al da truke-mugikortasuna egitea hitzartutako kredituak baino gutxiagorekin?

Orokorrean, mugikortasuna egin ahal izateko, 30 kreditu (lauhilabete baterako) edo 60 kreditu (kurtso osorako) eraman behar dira norakora. Guztiz justifikatutako kasuetan, 24 kreditu (lauhilabete baterako) edo 48 kreditu (kurtso osorako) onar daitezke. Ez da onartuko akordio akademiko bat kreditu horien baino gutxiagorekin.

Graduko ikaslea naiz. Zer egin dezaket nire akordio akademikoa osatzeko, 24/48 kreditu baino gutxiago badaukat?

Kreditu nahikoak ez badauzkazu, 4. mailako edozein hautazko irakasgaitan matrikula zaitzetzeko, beharrezkoak diren gutxienezko kreditu kopurua lortzeko.

Masterretako ikaslea naiz. Zer egin dezaket nire akordio akademikoa osatzeko, 24/48 kreditu baino gutxiago badaukat?

Kreditu nahikoak ez badauzkazu, 2. mailako edozein hautazko irakasgaitan matrikula zaitzetzeko, beharrezkoak diren gutxienezko kreditu kopurua lortzeko.

Zenbat denbora irauten du truke-mugikortasunak?

Truke-mugikortasunaren iraupena, GAUR-en agertzen dena da: norako bat 6 hilabeterako grabatuta badago, adibidez, mugikortasuna lauhilabete batekoa izango da.

Nazioarteko norako bat esleitu didate, mugikortasuna bigarren lauhilekoan ere egin daitekeen titulazio batekoa naiz eta egonaldiaren iraupena luzatu nahi dut. Luzapena eskatu ahal dut?

Naizoarteko mugikortasunaren kasuan, Truke-mugikortasunaren iraupena, GAUR-en agertzen dena da. Behin mugikortasuna hasita egonaldiaren iraupena luzatzeko eskaera justifikatzen bada eta norako unibertsitatea ados badago, Zuzendariordetzaren webgunean adierazitako prozedurari jarraitu behar zaio.

Nire egonaldia luzatzeko eskatzen badut, zenbat iraun dezake nire mugikortasunak?

Mugikortasun baten gehieneko iraupena 12 hilabetekoa da, 360 egunekoa, hasiera-ziurtagiriaren datatik amaiera-ziurtagiriaren datara arte. Gainera, amaiera-ziurtagiriaren data ezin da izan irailaren 30a baino gorakoa.

Nazioarteko norako bat esleitu didate eta egonaldiaren iraupena murriztu nahi dut. Murrizketa eskatu ahal dut?

Naizoarteko mugikortasunaren kasuan, Truke-mugikortasunaren iraupena, GAUR-en agertzen dena da. Behin mugikortasuna hasita egonaldiaren iraupena murrizteko eskaera justifikatzen bada eta norako unibertsitatea ados badago, Zuzendariordetzaren webgunean adierazitako prozedurari jarraitu behar zaio.

Egonaldia murrizteko eskatzen badut, zein da nire mugikortasunaren gutxieneko iraupena?

Ikasketa-mugikortasun baten gutxieneko iraupena, norako unibertsitateko eskola-aldia da (5-6 hilabete artekoa, norakoen arabera).

Lehen lauhilerako norakoa esleitu didate, baina Eskolako bigarren lauhilabete klaseak norakoan amaitu baino lehen hasten dira. Zer egin behar dut?

Mugikortasuna egiten ari zaren bitartean norakoko Unibertsitateko ikaslea zara. Beraz, bere arauetara funtzionamenduari eta egutegi akademikoari jarraitu behar diezu. Eskolako bigarren lauhilabete klaseak beranduago hasiko dituzula ikusten baduzu, jarri harremanetan Eskolako irakasleekin, zure mugikortasun osoa (klaseak eta azterketak) bukatu eta gero hasiko zarela haiek jakinarazteko.

Lehen lauhilerako norakoa esleitu didate, baina Eskolako bigarren lauhilabetea hasi bezain laster praktikak egin nahi ditut empresa batean. Zer egin behar dut?

Mugikortasuna egiten ari zaren bitartean norakoko Unibertsitateko ikaslea zara. Beraz, bere arauetara funtzionamenduari eta egutegi akademikoari jarraitu behar diezu. Pentsatzen zenuen baino beranduago bueltatuko bazara, jarri harremanetan praktikak egingo dituzun enpresarekin, dokumentazio guztia bueltan egongo zaren datarekin prestatzeko, zure mugikortasun osoa (klaseak eta azterketak) bukatu eta gero.

Nire truke-mugikortasuna hitzarmenik ez dagoen norako batean egiteko eskatu ahal dut?

Ez, truke-mugikortasuna hitzarmenik dagoen unibertsitateekin egin daiteke soilik.

Unibertsitate bateko Fakultate edo Sail zehatz baterako sinatuta dagoen akordio baten norakoa esleitzen badidate, egin al dezaket nire truke-mugikortasuna unibertsitate horretako beste Fakultate edo Sail batean?

Ez, truke-mugikortasuna hitzarmenik sinatuta dagoen Fakultate edo Sail zehatzean egin daiteke soilik.

Unibertsitate bateko Fakultate edo Sail zehatz baterako sinatuta dagoen akordio baten norakoa esleitzen badidate, unibertsitate horretako beste Fakultate ala Sail bateko irakasgaiak eraman al ditzake nire akordio akademikoan?

Bai, baldin eta aurrez norako Fakultate edo Sailekin kontsulta egiten baduzu eta ados badaude.

Unibertsitate bateko Fakultate edo Sail zehatz baterako sinatuta dagoen akordio baten norakoa esleitzen badidate, eta nire nominaizoa bidali baino lehen unibertsitate horretako berako beste Fakultate edo Sail batekin hitzarmen berria sinatzen bada, hitzarmen berri hori erabil al dezaket, nire mugikortasuna bigarren Fakultate edo Sail horretan egiteko?

Ez, truke-mugikortasuna, GAUR-en eskaera egitean hitzarmenik sinatuta dagoen Unibertsitate, Fakultate edo Sailetan egin daiteke soilik.

Nire mugikortasuna lehen lauhilabetekoa bada eta Eskolara bueltatzen banaiz bigarren lauhilabeteko klaseak hasi eta gero, eskubidea al daukat ebaluazio jarraiaren lanak beranduago aurkezteko?

Ez. Zure mugikortasuna bukatzen bada Bilbon lauhilabetea hasi eta gero, ez daukazu eskubiderik ebaluazio jarraiaren lanak zure ikaskideek baino beranduago aurkezteko. Baina Bilbora bueltatu aurretik zure irakasleekin harremanetan jartzeko gomendatzen dizugu, klasera beste ikasleak baino beranduago joango zarela haiei abisatzeko

Non lortu ahal dut bekei eta laguntza ekonomikoei buruzko informazioa?

UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzara jo dezakezu. Hango Naizoarteko Harremanen Bulegoa da gai horietaz arduratzen dena, eta Informazioa eman ahal izango dizu.

Nire posta elektronikoa pertsonalera bidaltzen dit Unibertsitateak mugikortasunari buruzko Informazioa?

UPV/EHUK, informazio guztia @ikasle.ehu.eus postara bidaltzen du.